
LURPEKO EDUKIONTZIEN MANTENTZE LAN PREBENTIBO ETA GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATURAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea lurpeko edukiontzietan honako zerbitzu hauek ematea da, baldintza tekniko honetan eta administrazio baldintza partikularren pleguan ezarritako baldintzetan:

- a. Lurpeko unitateak barrutik eta kanpotik garbitzea.
- b. Manten lan prebentiboa egiteko aldizkako lanak.

Halaber, kontratuan Arrasaten instalatutako lurpeko edukiontzia prest jartzea sartzen da, plegu honetan zehazten diren baldintzetan.

Kontratu honetako baldintzak lurpeko beste unitate batzuei ere aplikatu ahal izango zaizkie, betiere Debagoieneko lurralde eremuan badaude (Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragon, Oñati, Bergara, Elgeta eta Antzuola udalerriak) eta dagokion Udalak hori eskatzen badu.

2 KONTRATUAREN IKUSPUNTUA ETA BALDINTZA OROKORRAK

2005. eta 2010. urteen artean Arrasate udalerrian I. Eranskinean zehazten diren lurpeko edukiontzien 58 unitateak instalatu ziren, guztiak ala guztiak Biurrarena, S.Coop. enpresarenak, hornidura eta instalazioa egiteko Mankomunitatearen kontratu baten bitartez.

Aipatu kontratuak eskualdeko Udalek instalatu nahi zituzten lurpeko unitateak erosteko eta instalatzeko erraztasuna ematen zuen, Udalak aurretiaz eskatuta, hark unitateen erosketa eta instalazioak bere gain hartuz. Kontratu Mankomunitatean zentralizatu zen, Mankomunitateak hiri hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko kudeatzen dituen zerbitzuekin ahalik eta bateragarritasunik handiena segurtatzeko, eskualde osoan lurpeko sistema bera instalatuz. Kontratu horren bitartez eskualdean lurpeko 97 unitate instalatu ziren, horietatik 58 Arrasaten¹.

Kontratuan instalatutako unitateen garbiketa eta mantentze lanetako zerbitzua sartu zen, gutxienez 2 urtekoa, eta horren indarraldia amaitu egin da dagoeneko.

Gaur egun, eskualdeko bateko eta besteko udaletan azken urteetan zabaltzen ari den atez ateko bilketa sistemen ezarpenaren ondorioz, lurpeko unitateek beren eginkizuna galdu dute, eta eskualdeko hainbat udalerritan (Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta) lurpeko unitateak itxi egin dira edo aurki itxiko dira. Berez, unitate horiek ez dira kontratu honen xede (II. Eranskinean

¹ 97 unitate horiez gain, lehenago beste 4 unitate zeuden Eskoriatzan instalatuta, Equinord markakoak; beraz, Debagoienean guztira 101 unitate dira.

unitate horien ezaugarriak zehazten dira). Aitzitik, ezin da baztertu Udal horiek etorkizunean unitate horiei erabileraren bat ematea, eta horregatik aurreikusi da etorkizunean unitate horien mantentze lanak eta garbiketa ere kontratu honi atxiki ahal izatea.

Halaber, lurpeko unitate gehigarriren bat instalatuko balitz, komenigarria litzateke era berean kontratu honi gainerakoen baldintza berberetan atxiki ahal izatea, eta horregatik aurreikusi da aukera hori, betiere dagokion Udalak hori erabakitzen badu.

Arrasateko Udalak edukiontzien bitarteko bilketa sistema bat ezartzearen alde egin du (materia organikoa, errefusa, papera-kartoa, ontzi arinak eta beira), eta interesa erakutsi du bere udalerrian instalatutako lurpeko unitateei buruz.

Hori da kontratu hau eskaintzeko arrazoa, hasiera batean Arrasateko lurpeko edukiontzien garbiketa eta mantentze lan prebentiboko zerbitzua emateko. Matxuren konponketa Arrasateko Udalak kudeatuko du zuzenean, baita ekipamenduen aldaketak ere, horien artean buzoiak kentzea edo jartzea, jasogailurik ez duten ekipamenduetan jasogailuak jartzea, eta antzekoak, ekipamenduen aldaketa eragiten badute, eta horregatik ez dira kontratu honen xede, ondoren deskribatzen den prest jartzea izan ezik.

Hasieran, oraingo 4 zatikiak lurpeko unitateetan jasoko dira (zabor masa, papera-kartoa, ontzi arinak eta beira).

Bigarren fase batean 5 zatikien sistema ezarriko da, edukiontzien bitartez (materia organikoa barne), seguruenik 2014. urtearen barruan. Udalak adierazi du sistema hori gutxienez 9 hilabetez mantenduko dela eta, lortutako emaitzen arabera, Udalak erabakiko du bilketa sisteman aldaketarik egiten den, adibidez, zatiki guztietan atez ateko bilketa sistema ezartzea, edo horietako batzuetan baino ez, edo beste aldaketa batzuk. Daitekeena da aldaketa horiek instalatutako lurpeko edukiontzien eginkizuna galtzea, edo horien zati batena, eta horregatik ezin da segurtatu unitate guztiek kontratuaren indarraldi osoan garbiketa eta mantentze lanak beharko dituztenik.

Argitu behar da materia organikoaren eta errefusaren zatikiak, berez, ez direla lurpeko edukiontzietan jasoko, edukiontzi bakoitzean sarreraren kontrol bat instalatuko baita. Ondorioz, jasotzeko sistema duten unitateak ez dira zatiki horietarako erabiliko. Daitekeena da Udalak unitate horiek papera-kartoa edo ontziak jasotzeko erabiliko direla erabakitzea, Mankomunitateak gaikako bilketa sistema alboko karga sistemara aldatuko baitu. Jasotzeko sistema duten unitateak erabilerarik gabe gera daitezke, edo Udalak horietan jasogailuak instalatzea erabaki dezake, alboko kargako bilketara egokitzeko. Edonola ere, beiraren bilketa gaur egungo goiko deskarga sistemaren bidez egiten jarraituko da, gako eta garabi bidez.

Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, Udalak unitate jakin batzuk ixtea erabaki dezake, kostuak aurrezteko edo beste arrazoi batzuegatik.

Ikusten denez, Udalak adierazitako borondatea lurpeko edukiontziak operatibo mantentzea bada ere, ziurgabetasun maila bat dago etorkizunean unitate bakoitzari emango zaizkion erabilerei dagokienez, eta horregatik ezin da segurtatu kontratua indarrean dagoen denbora guztian 58

unitateak operatibo egongo direla. Gainera, lehenago esan denez, komeni da kontratu hau funtzionamenduan jartzen diren beste unitate batzuei aplikatzeko aukera zabaltzea.

Horrenbestez, gastua egiazki egiten diren lanei doitzeko helburuarekin, kontratuan lan estandarreko prezio unitarioak ezarri dira, plegu honetan definitzen denaren arabera. Mankomunitateak, dago(z)kion Udalaren(en) oniritziarekin, une bakoitzean egin beharreko lanak aginduko ditu, eta egiazki egindako lanak aipatutako prezio unitarioak aplikatuz ordainduko dira.

Horrez gain, Arrasaten lurperatutako unitateak akatsak eta matxurak pilatuz joan dira instalatu zirenetik eta, horietako batzuk konpondu ez direnez, beharrezkoa da instalatutako unitate guztiak prest jartzea, mantentze eta garbitze lanak hasi baino lehenago. Kontratu honetan, halaber, prest jartzeko lan hori ere sartzen da.

Esleipendunak bere bitartekoekin egingo ditu lan guztiak, hau da, horiek egiteko ez da beharrezkoa izango Mankomunitateak edo dagokion Udalak esku hartzea. Irizpide orokor horretatik salbuesten da:

- Edukiontziak hustea edo zulotik ateratzea, beharrezkoa balitz, eta hori Mankomunitateak egingo du.
- Mankomunitateak lupekoetatik ateratzen diren hondakin solidoak jartzeko behar diren edukiontziak jarriko ditu esleipendunaren esku, eta horien kudeaketa Mankomunitateari egokituko zaio.

Lan guztiak beharrezko segurtasun neurriekin egingo dira, aplikatu beharreko araudia betez. Kontratatu lanak egiten diren bitartean, esleipendunak zuloen perimetroa seinaleztatu eta hesituko du, nahigabeko erorikoak galarazteko eta oinezkoa pasabidea desbideratzeko.

Kontratu honetako prezioetan kontratatutako lan guztiak egiteko beharrezko gastuak sartzen dira (eskulana, kilometrajea, lekualdaketak, piezak, materialak, edo beste edozein kostu), plegu honetan edo administrazio baldintzen pleguan berariaz kontrakoa adierazi ezean.

3 GARBIKETA LANAK

Lurpeko unitateen kanpoko eta barruko garbiketa 4 hilean behin aurreikusten da (urtean 3 garbiketa), mantentze prebentiboko azterketa bakoitzaren. Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen badu maiztasun hori aldatu ahal izango du, edo garbiketa bereziak edo puntualak egiteko agindu. Edonola ere, Mankomunitateak agindutako eta behar bezala egindako garbiketak baino ez dira ordainduko, esleipenaren prezioan.

Aldizkako garbitasuna ekipamenduak egoera onean mantentzeko eta bizi baliagarria luzatzeko funtsezko zatia da, eta matxurak prebenitzen dira.

Horrez gain, herritarrentzat garrantzitsua da baita ere kalean instalatutako elementu horien kanpoko itxura estetikoa egoki mantentzea.

Beraz, garbiketa lanak zorrotzak izan behar dira, eta egindako garbiketa bakoitzaren ondoren kanpoaldea itxura estetiko onarekin eta barrualdea behar bezain garbi geratu behar dira, lurperatzearen funtzionamenduari eragin diezaiokeen hondakinik edo elementu solterik gabe, ur edo lohirik pilatu gabe, eta hautemateko moduko usainik gabe.

Garbiketa lanetan sartzen dira, gutxienez:

- Buzoiaren kanpoko garbiketa.
- Grafitti, txartel, eranskailu, pintada edo buzoiri edo lurrari atxikitako edozein elementu kentzea (kanpoko tapa).
- Taparen kanpoko garbiketa (baldosazko zorua edo beste akabera bat), gomazko junturak barne, zeinak garbi-garbi geratu behar diren.
- Lurpekoaren taparen barrualdea garbitzea.
- Buzoiaren barrualdea garbitzea.
- Plataforma garbitzea.
- Edukiontzia garbitzea, jasotzeko sistemarik ez duten unitateei dagokienez.
- Zuloko hormak eta hondoa garbitzea.
- Ontziaren hondoa edo plataforman metatu ahal izan daitekeen hondakin oro kentzea.
- Zulo barnean metatutako lohi eta urak xurgatzea eta xukatzea, behar izanez gero. Lohi eta ur zikinen kudeaketa esleipendunaren kontu egingo dira.

Garbiketa lanak presio bidezko urez, eskuilaz edo beharrezko bitartekoez egingo dira, eta emaitzarik onena lortzeko behar diren produktuez: grafitien aurkako detergenteak, desinfektatzaileak, usain txarrak saihesteko produktuak, etab.

Lizitatuzaileek beren eskaintzetan zehatz-mehatz adieraziko du garbitzeko duten metodologia, erabilitako bitartekoak eta produktuak, eta garbiketaren prezioaren barruan eskaintzen diren eragiketa guztiak zehatz adieraziko dituzte. Horren balorazio teknikoa egingo da, dagokion puntuazioarekin.

4 MANTENTZE LAN PREBENTIBOAK

Mantentze lan prebentiboak 4 hilean behin egitea aurreikusi da (urtean 3 azterketa). Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen badu maiztasun hori aldatu ahal izango du, edo mantentze lan prebentibo puntualak egiteko agindu. Edonola ere, Mankomunitateak agindutako eta behar bezala egindako azterketak baino ez dira ordainduko, esleipenaren prezioan.

Azterketa bakoitzean egin beharreko lanen barruan sartzen da unitate bakoitzaren kanpoko eta barruko elementuen azterketa, egoera txarrean dauden elementuak ordeztzea, konpontzea edo doitzea, lurpeko unitateen multzo bakoitzaren kontrolerako unitate zentrala eta ura ponpatzeko sistema barne, unitate bakoitza funtzionatzeko egoera onean geratzeko eta etorkizunean matxurak prebenitzeko.

Azterketa bakoitzean gutxienez egin beharreko lanak honako hauek dira:

- Unitate bakoitzaren elementu, zirkuitu eta sistema guztien egoeraren azterketa (funtzionala, estrukturala, segurtasunekoa, estetikoa, babestekoa edo beste edozein motatakoa), barrukoak zein kanpokoak, mekanikoak zein hidraulikoak edo elektrikoak, edo bestelakoak, horien artean segurtasun sistemak, ura ponpatzeko eta ebakutzeko sistemak eta lurpekoen multzo bakoitza kontrolatzeko unitate zentrala.
- Lurpekoaren elementu guztien benetako funtzionamenduaren probak egitea, eskuz zein urrunetik: jasogailua eta tapa ireki eta ixteko ziklo osoa, buzoiak irekitzea eta ixtea, gida eta artikulazioen funtzionamenduaren azterketa, etab., marruskatu edo tratatu egiten den begiratzuz, elementurik lokatuta edo desorekatuta dagoen zainduz, motorraren funtzionamendua, olioala galtzea, etab.
- Beharra duten elementu guztiak koipeztatzea.
- Olio hidraulikoaren mailak eta presioak begiratzeko eta beharra dagoenean olioala jartzea edo aldatzea. Olioala uraren iragazkien eta iragazki magnetikoen egoera egiaztatzea, eta beharrezkoa denean garbitzea edo ordezkatzeko. Purgatzea. Motorraren egoera begiratzeko. Estankotasuna eta ihesak egiaztatzea, beharrezkoa bada konexioak eta mangelak ordeztzea, eta errakoreak eta bridak doitzea edo ordeztzea.
- Gomazko juntura guztiak aztertzea eta, beharrezkoa bada, ordeztzea.
- Detektatzen diren akatsetan ordeztzeko, konpontzeko edo doitzeko beste lan batzuk, horien artean: egoera txarrean dauden elementuak ordeztzea, konpontzea edo doitzea, lokatuta edo desorekatuta dauden elementuak doitzea, beharrezko lekuetan pintura ukituak egitea, mailatuak eta akatsak konpontzea, torlojuak eta ainguraketak lotzea, gaizki dauden kableak aldatzea, soldadurak egitea, elementu mekaniko, hidrauliko, elektriko edo bestelakoak konpontzea, motor, ponpa, pieza mekanismo, ekipo edo beste elementu batzuk ordeztzea, etab. Plegu honetan ez da ordezkapen, mantentze lan prebentiboko azterketa bakoitzean egin beharreko ordezkapen, konponketa edo doiketa lanen zerrenda itxia ematen.. LIZITATZAILEEK ARGI ETA GARBI DESKRIBATU BEHARKO

DUTE MANTENTZE LAN PREBENTIBO MODUAN ESKAINTZEN DIREN ORDEZKAPEN, KONPONKETA ETA DOIKETA LANEN NORAINOKOA, eta zehatz adierazi beharko dute mantentze lan prebentiboaren prezioaren barruan eskaintzen diren lanak, konponketak, doiketak, pieza ordezkapenak edo bestelako edozein, baita prezio horren barruan eskaintzen ez diren lanak edo piezak ere.

- Azterketa bakoitzaren txostena egitea eta Mankomunitateari ematea, zeinean identifikatu egingo diren egindako mantentze lanak, aztertutako unitateak, datak, detektatutako matxurak eta akatsak, egindako ordezkapen, konponketa eta doiketak eta egiteke daudenak (mantentze lan prebentiboaren irismenetik kanpo). Txostenetan unitate bakoitzaren elementu bakoitzari egindako egiaztapen eta ordezkapen, konponketa eta doiketa guztien zerrenda zehatza bat egongo da, puntuz puntu, eta lanak egin zituen teknikariak eta enpresaren arduradunak izenpetuta egongo dira. Horretarako, lizitatzailleek mantentze lanen txostenaren eredu bat aurkeztuko dute beren eskaintzetan, aplikatu beharreko "check-list"-arekin, eta hori atal teknikoan puntuatu egingo da. Puntuazioan txosten eredu horren orokortasuna edo definizio eta zehaztapen falta zigortuko da.

Lizitatzailleek, halaber, esleipenaren prezioaren barruan, zehaztu egingo dute beren eskaintza teknikoan zein elementu ordezkatu duten sistematikoki eta aurrez ezarritako maiztasunarekin (zein egoeratan dauden gorabehera), kasu bakoitzean maiztasuna adierazita: olio hidraulikoa, gomazko junturak edo beste batzuk.

Horren guztiaren balorazio teknikoa egingo da, dagokion puntuazioarekin. Zehaztasunik eza, orokortasuna edo anbiguotasuna zigortu egingo da puntuazioan, hain zuzen ere ahalik eta argien zehaztu nahi delako esleitutako prezioaren barruan enpresak zein lan sartzeko edo ez sartzeko konpromisoa hartzen duen.

5 PREST JARTZEA

Deskribatu denez, Arrasateko lurpeko unitateak prest jarri behar dira mantentze lan prebentiboaren lanak hasi aurretik, eta horren barruan konponketa garrantzitsuak sartzeko zehaztuta kasutan.

Adibidez, Makatzena eta Seber Altubeko gutxienez bi unitatetan jasokuntza hidraulikoaren mahaia aldatu egin behar da, eta unitate gehienetan perimetroko ebakien aurkako segurtasun profilak eta segurtasun argiak aldatu egin behar dira. Seber Altuben instalazio elektrikoa erreta dago, eta buzoi bat oso herdoilduta.

Halaber, zenbait kasutan gabeziak detektatu dira, hala nola zilindro batzuek galdu egiten dute edo kolpatuta daude, konexioak apurtuta, buzoiko danborren bat solte, taparen bat bere lekutik kanpo edo ixtean erabat ixten ez dena, olio hidraulikoaren maila baxua, detektagailu induktiboak

hondatuta, edukiontziko atzeko topeak okertuta edo ez dago, ura ateratzeko ponpak hondatuta, motorrak kaltetuta, etab.

III. Eranskinean detektatutako hainbat gabezia eta beharren zerrenda bat egiten da. ZERRENDA HORI ORIENTAGARRIA BAINO EZ DA. BEHARRAK ZERRENDA HORRETAN JASOTZEN DIRENAK BAINO HANDIAGOAK IZAN DAITEZKE.

prest jartzeko kontratatzen den lanean lurpeko unitateen ELEMENTU GUZTIAK funtzionatzeko egoera ezin hobean geratzeko egin beharreko KONPONKETA, DOIKETA, ORDEZKAPEN EDO BESTELAKO EDOZEIN LAN sartzen da, horien irismena eta kostua edozein izanda ere, esleipenaren prezio itxiaren barruan. Lan horiei lotutako kostu GUZTIAK esleipendunaren kontu joango dira, JARRI BEHARREKO PIEZA, MEKANISMO, EKIPO, MATERIAL EDO ELEMENTU BERRIEN KOSTUA BARNE.

Egin beharreko lanen irismena zehazteko, lizitatuzaileei unitate guztiak ikusteko aukera emango zaie, eta eskaintzak prestatzeko fasean horiek guztiak aztertu ahal izango dituzte.

Beharbada, lizitatuzailea eskaintza landu zuenean ez zen ohartu hainbat beharrez, edo eskaintza aurkeztu ondoren beste behar batzuk sor daitezke, unitateek funtzionatzen jarraitzen baitute.

Lizitatuzaileek beren eskaintza ekonomikoak zehaztean hori kontuan hartu beharko dute. Aplikatu beharreko irizpidea da esleitutako prezioan kontratatu egiten direla egin beharreko, konponketa, doiketa, ordezkapen edo lan guztiak, unitateak prest jarri eta gero erabiltzeko ezin hobeto gera daitezzen.

Esleipendunak txosten zehatz bat aurkeztuko du, unitate bakoitzean aurkitu dituen gabezia eta egin beharreko konponketa guztiekin, unitateak eta datak identifikatuta.

Prest jartzeko lanak gehienez ere sei (6) asteko epean egin behar dira, Mankomunitateak hasteko agindua ematen duenetik. Epe horretan abuztu osoa edo zati bar sar daiteke.

Lanak egin eta gero, Mankomunitateak, Arrasateko Udalaren laguntzarekin beharrezkoa bada, unitate guztiak eta euren funtzionamendua aztertuko ditu esleipendunarekin batera. Esleipendunak detektatutako gabezia guztiak zuzendu beharko ditu, lanak jaso ahal izateko eta prezioa ordain dadin. Edonola ere, egindako lanak administrazio baldintza partikularren pleguan ezarritako berme epean sartuko dira.

Prest jartzeko lanen aurretik, dagokion lotearen esleipendunak unitate guztiak garbituko ditu, kontrako baldintzetan, eta hori esleipenean ezarritako prezioan ordainduko da.

DILIGENTZIA.- Mankomunitateko Gobernu Batzordeak 2014ko maiatzaren 15ean egindako saioan Plegu hau onartu zuela jasoarazteko.

**Arrasaten, 2014ko maiatzaren 16an.
IDAZKARIA**